

Enrike Bernedo Elkoror-Iribe

*Eibar,
Gipuzkoa
(1926-2012)*

Aurkibidea

Biografia



Enrike Bernedo Elkororiribe Eibarren jaio zen, 1926ko apirilaren 7an. Sansaburu, Errekatxu eta Txantxa-zelai inguruak oso ondo ezagutzen zituen bertan bizi izan zelako haurtzaroa. Antzinako Eibar eta iragandako garaiak bizi-bizi izan ditu beti gogoan.

Zintak

EIB-090

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Data:** 2009-07-30
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-091

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Data:** 2009-08-07
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

EIB-092

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Data:** 2009-08-07
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Aiton-amonak baserritik Eibarrera 1900ean

- **Erref:** EIB-090/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aiton-amonak baserritik herrira jeitsi behar izan zuten lanera eta aita Eibarren jaio zen 1900. urtean.

2. Gerra aurretik Alfa lantegiak filialak zituen

- **Erref:** EIB-090/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Gerra aurretik, aita Alfako filial batekin lan egiten zuen eskopetak egiten. Bista Ederren zeuden lehenengo lantegi haiek. Lantegiak behea jo zuenean, aita herriko lanetan peoi bezala hasi zen lanean.</p>

3. Untzagako lima-fabrikako kunboa

- **Erref:** EIB-090/007
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:09:01. **Bukatu:** 00:11:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Untzagan garai batean lima-lantegi bat zegoen. Zuloagaren Untzagako koadroan agertzen den baserri hartan zegoen lantegia eta haren atzean kunbo bat zegoen. Goian, Txantxa-Zelain Frontoi Zaharra zegoen eta pelotak kunbora jausten ziren. Gero kunbo hori lehortu egin zuten plaza egiteko eta usteldutako pelotak zeudela gogoratzen du Enrikek.

4. Ubitxako garbitokia

- **Erref:** EIB-090/009
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:12:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Garbitoki bat zegoen Ubitxan. Estalita zegoen eta zelai txiki bat zeukan. Urak zapore ona zuen.

5. Gerra aurreko krisia armagintzan

- **Erref:** EIB-090/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:12:51. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ekonomia eta industria » Krisi industrialak

Laburpena:

Aitak peoi bezala lan egiten zuen herriko lanetan eta eguneko 4.5 pezeta irabazten zituen. Lantegi bateko ofizial batek eguneko 13 pezeta irabazten zituen. Krisia egon zen eta lantegi askok itxi behar izan zuten, udalak peoi eta antzeko lanak sortu zituen, jendea soldata minimo bat emateko.

6. I. Mundu Gerra garaiko ekonomia oparoa Eibarren

- **Erref:** EIB-090/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:15:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Politika » Gerra aurrea » I. Mundu Gerra (1914-1918)

Laburpena:

Berak entzuna du Eibarko garai ekonomiko onena I. Mundu Gerran izan zela. Eibarrek arma asko egiten zituen esportatzeko. Etxean ere pistolak izaten zituzten.

7. Udaletxeko eskoletan Señorita Elisarekin

- **Erref:** EIB-090/013
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Aita tximiniak garbitzen ibili zen eta etxera beltz-beltz bueltatzen zela gogoratzen du. Udaletxeko eskoletan ikasi zuen Enrikek, Señorita Elisarekin. Adin ezberdinetako hurrek elkarrekin ikasten zuten.

8. 1934ko iraultzan kuartela inguratu zuten

- **Erref:** EIB-090/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1934ko iraultzan zortzi urte zituen Enrikek. Guardia Zibilaren kuartela gaur egun San Andres eskola dagoen lekuan zegoen eta guardiak herritik beste herritar batzuk bezala ibiltzen ziren. Iraultzan, kuartela inguratu zuten herritarrek.

9. 1934ko iraultzako preso eibartarrak

- **Erref:** EIB-090/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Eibarren 1934ko iraultza nola eman zen kontatzen du. Atxilotuak egon ziren eta Iruñeko espetxera eta Hondarribiko Guadalupera eraman zituzten.

10. 1934ko iraultzan, "guardia de asalto"ak egurra ematen

- **Erref:** EIB-090/016
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:23:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>1934ko iraultzan, guardia zibilaren kuartela inguratu zuten Bolinguitik. Armeria Eskolako teilatutik norbait hil omen zuten. Iraultzako istiluekin bukatzeko eraso-guardia edo "guardia de asalto" a bidali zuten Eibarrera eta sekulako egurra eman omen zuten.</p>

11. "Guardia de asalto"koen jantziak nolakoak ziren

- **Erref:** EIB-090/017
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:25:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Eraso-guardia edo "guardia de asalto"koak urdinez joaten ziren jantzita, larruzko polainekin eta bisera batekin. Kanean hartu zituzten eta etxeratze-agindua ezarri zuten. Norbait bilduta ikusiz gero, haiek egurtzera joaten ziren.

12. Barrenkale kaleko Serenuanekua taberna

- **Erref:** EIB-090/018
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:25:07. **Bukatu:** 00:27:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Amandria Barrenkalean bizi zen. Barrenkale kaleko abestia kantatzen du. Serenuanekua taberna zegoen Barrenkalean. Ardoa non gordetzen zen eta nola ateratzen zen kontatzen du.</p>

13. Pistolez betetako saski bat aurkitu zuten

- **Erref:** EIB-090/019
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:27:23. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>1934ko iraultza pasatu zenean etxeratze-agindua zegoen eta "guardia de asalto"koek armak aurkitzeko kontrolak egiten zituzten. Lagunekin zegoela, Errekatxun pistolez betetako saski bat aurkitu zuten eta banatu egin zituzten. Beraiek baino nagusiagoak ziren batzuek esan zieten pistolak non gorde eta

gero kendu egin zizkieten. Iraultza ondoren, pistola asko bota edo ezkutatu egin ziren. Etxeren batean armak harrapatu ezkerro, atxilotuak joaten ziren.</p>

14. Umetan lasterketak egiten zituzten

- **Erref:** EIB-090/020
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:34:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Lasterketak egiten zituzten eta irabazleak, Errastineko lantegiko pieza bat irabazten zuen, kopa bat balitz bezala.

15. Kale ezberdinetako umeen arteko pikeak

- **Erref:** EIB-090/021
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:34:08. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Sansaburukoek eta Errekatxukoek kuadrilla bat osatzen zuten eta Elgeta kalekoekin pikeak zituzten tiragomarekin batez ere. Batzuetan, elkartu egiten ziren beste kale batzuetakoen aurka egiteko. Bere kuadrillak gaztainondo batean txabola eder bat eraiki zuen eta pikerik ez zegoenean, Txirio-kalekoak bertara gonbidatzen zituzten.

16. Errekatxu aldea; iturria

- **Erref:** EIB-090/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Natura » Flora
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Errekatxutik Lekamendi baserriraino dagoen dena menderatzen zutela kontatzen du. Dena zen mendia, pagadiz eta gaztainondo beteta. Gaztainondo onena Errekatxun zegoen, iturriaren gainean. Iturrira jende asko hurbiltzen zen eta ilarak sortzen ziren.</p>

17. Don Ziriako Agirre medikua

- **Erref:** EIB-090/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:42:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Don Ziriako Agirre medikuaren etxea elizaren ondoan zegoen. Etxe ederra zen. Ziriako Agirre Deban ito zen, itsasoan txango bat egiten ari zela.</p>

18. Isasitik behera ziztu-bizian joan zen kamioiarena

- **Erref:** EIB-090/026
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Behin kamioi bat Isasitik behera freno gabe nola joan zen kontatzen du. Astelena frontoi inguruan gurdi bat jo eta gizon bat paratxokesean eraman zuen, Kalbetoi kalean arraina saltzen zuen postu batekin talka egin zuen, ia beste kamioi bat jo zuen Gomezeneko farmazian (gaur egungo Larramendi farmazia) eta Txirio kalea igotzen hasi zen frenatzeko asmoz, baina kamioiak atzera egin eta Birjiñapen bi haur harrapatu zituen. Ez zen inor zauritu.</p>

19. 1934ko iraultzaren ondoren, eraso-guardia herria kontrolatzen

- **Erref:** EIB-090/028
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:47:03. **Bukatu:** 00:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1934ko iraultza Eibarren gertatu zenean, asko atxilotu egin zituzten, tartean Benigno Bascaran. Iraultzaren ondoren, eraso-guardia edo "guardia de asalto" a hiletan egon zen herrian, kontrolak egiten. Beraien garita eliza ondoan zegoen. "Ladrillos" izeneko gizon bat zen aguazilen burua gerra aurretik. Gerra ondoren, faxisten bandora pasatu zen.

20. Gerra Zibilaren hasiera; mugen itxiera

- **Erref:** EIB-090/030
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Hamar urte zituen gerra hasi zenean. Gerraren hasiera nola eman zen kontatzen du. Nafarroan nazionalen bandoan jarri ziren eta Irunera joan ziren muga ixtera. Gipuzkoa guztia hartu zuten erreketek eta Eibarrera iristean erresistentzia handia aurkitu zuten.

21. Frontea Eibarren zazpi hilabetez

- **Erref:** EIB-090/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Erreketeek Gipuzkoa osoa hartu zuten baina Eibarren erresistentzia handia aurkitu zuten. Frontea egon zen bertan zazpi hilabetez. Eibarko herriak "En defensa de la democracia y la libertad" jartzen duen harri handi bat merezi duela uste du Enrikek.

22. 500 obus botatzen ziren egunero

- **Erref:** EIB-090/032
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:54:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Kalamuatik Markinara eta handik Berriatuara frontea zegoen. Maltzagatik Ilordora (Soraluze) eta handik Bergarara eta Elgetara ere. Zazpi hilabetez frontea egon zen. Karakatetik egunero 500 obus botatzen zituzten.</p>

23. Gerra garaian makinak Deustora eraman zituzten

- **Erref:** EIB-090/033
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:54:59. **Bukatu:** 00:57:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerraostean Zaldibarrera ihes egin zuten baina aita Eibarren jarraitu zuen. Herriko lantegietako makinak Deustora eramaten zituen aita eta bere nagusia Narciso Egurrola "Tragamáquinas" zen.

24. Otaola inguruko babeslekua

- **Erref:** EIB-090/034
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:59. **Bukatu:** 00:59:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Zaldibarretik Eibarrera joaten zen Enrike aita bisitatzeraz. Otaola Erdi baserriaren parean gerrako babesleku bat zegoen eta behin sartu egin behar izan zuten. Handik hegazkinak pasatzen ikusi zituzten.</p>

25. Ego Gain kaleko bonbak 70 lagun hil zituen

- **Erref:** EIB-090/036
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Arrate Hoteletik gertu garbitoki bat zegoen eta urak salto moduko bat egiten zuen eta babesleku bat sortu zuten bertan. Irteera Julian Etxeberria kalean zegoen, Klub Deportiboa dagoen lekuan. Bonba bat bota zuten Isasi Okindegiaren parean eta babeslekuan zeuden 70 pertsona inguru hil ziren. Bonbaren uhinak Julian Etxeberriako irteeratik atera ziren eta bertan zegoen jendea bultzatu zuen kanpora.</p>

26. Durangoko bonbardaketa ikusi zuen

- **Erref:** EIB-090/037
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:07:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Durangoko bonbardaketan Gernikan baino pertsona gehiago hil zirela uste du Enrikek. Zaldibartik ikusi zuen bonbardaketa. Gasteiztik irteten ziren hegazkinak eta Santurtzin zeuden itsasontziak bonbardatzen zituzten. Egun batean, Bilbon buelta eman eta Durangora heldzean bonbak bota zituzten. Errepublikanoek 3 edo 4 kaza errusiar bakarrik zituen. "Txatoak" eta "moskak" deitzen zieten. Azkarrak ziren baina gutxi zituzten. Durango larunbat batean bonbardatu zuten. Elizako aldarean jausi zen bat. Dozena bat eibartar hil ziren bertan, Muñoakoen aita besteak beste.

27. Durangora zihoan anbulantziak txakurra harrapatu zuen

- **Erref:** EIB-090/038
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:07:51. **Bukatu:** 01:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Durangoko bonbardaketaren ondoren anbulantzia pila bat pasatzen ziren Durangoruntz. Haietako batek Enrikeren Linda txakurra harrapatu eta hil zuen.</p>

28. Miliziano batek bizitza salbatu zion

- **Erref:** EIB-090/040
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:08:42. **Bukatu:** 01:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Behin Zaldibarren miliziano baten bizia salbatu zionekoa kontatzen du. Frontea erretiratzen zebilen eta lagun batekin joan zen ikustera. Bat-batean bi hegazkin agertu ziren eta metrailatzen hasi ziren. Miliziano bat Enrike hartu eta erreka ertz batera bota zuen. Egun berean bonbardatu zuten Gernika.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com